



“Hondakinen gaikako bilketa sustatzearen estrategia (GBSE) bultzatzeko San Markoko Mankomunitatearen eta Pasaia Udalaren arteko lankidetzak-hitzarmena aldatzeko akordioa.

Donostian, 2015eko irailaren(e)an

BILDU DIRA

Alde batetik, Jaime Dominguez-Macaya Lournaga jauna, San Markoko Mankomunitateko lehendakaria den heinean, Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2015eko irailaren 2an izendapena egin ondoren eta(e)ko.....(a)ren..... (e)an ospaturiko Batzarrak hitzarmen hau sinatzeko ahalmendua.

Eta bestetik, Izaskun Gómez Cermeño andrea, Pasaia alkatea den neurrian, 2015eko ekainaren 13an Udalbatzak izendapena egin ondoren, eta(e)ko.....(a)ren..... (e)an ospaturiko Udalbatzak hitzarmen hau sinatzeko ahalmendua.

Bi alderdiek haiek ordezkatzeko dituzten erakundeek izenean eta ordezkariak egiten dute egintza hau, eta akordio hau sinatzeko legezko ahalmena onartzen diote elkarri.

AZALTZEN DUTE:

LEHENA. 2012ko irailaren 10ean San Markoko Mankomunitateak eta Pasaia Udalak hitzarmen hau sinatu zuten: “Hondakinen gaikako bilketa sustatzearen estrategia (GBSE) bultzatzeko San Markoko Mankomunitatearen eta Pasaia Udalaren arteko lankidetzak-hitzarmena” (aurrerantzean hasierako hitzarmena).

Bigarrena. Hasierako hitzarmenaren baitan, San Markoko Mankomunitateak eta Pasaia Udalak hitzartu zuten Pasaia Udalak atez ateko sistemaren bidez, edo gutxienez 70%-eko birziklapen tasa lortuko duen sistema baten bitartez, hondakin organikoak, ontzi arinak eta papera eta kartoia jasoko zituela, eta ordura arte San Markoko Mankomunitateak Pasaia Udalarik emandako gainerako zerbitzuak Mankomunitatearen esku utziko zirela, hau da, ondorengo atalen bilketa: olioak, arropa, beira, pilak, eta udalerriko industrialdeetako bilketa.

Hirugarrena. Pasaia Udalak gai organiko, ontzi arin eta paperaren atez ateko bilketa sistema kendu nahi du, eta horren ordezkari edukiontzien bidezko bilketa sistema ezarri, atez ateko sistemarekin egiten zen gaikako bilketari eutsiz, hau da: atal organikoa, ontzi arinak eta papera eta kartoia.

Laugarrena. San Markoko Mankomunitateak, besteak beste, helburu hau du: zaborrak ezabatzearekin zerikusia duten alderdi guztiei konponbide osoa ematea, bilketa eta garraiotik hasi, eta hondakinak guztiz suntsitzera. Eta helburu horren arabera, historikoki gaikako bilketa-zerbitzua eman du Mankomunitateko kide diren udalerrietan. Une honetan Mankomunitateak beharrezko bitartekoak ditu, Pasaia Udalarik ontzi arinak eta papera biltzeko zerbitzua eskaintzeko, hasierako hitzarmenaren aurretik egiten zuen moduan; halaber, atal organikoa biltzeko zerbitzua ere eman diezaiokete udalarik, giltzaz irekitzekoak diren edukiontzien bitartez.

Bosgarrena. Hasierako hitzarmenaren errefusa-atala ahalik eta gehien murrizteko ezarritako ildoari jarraiki, Pasaia Udalak, edukiontzien bidezko bilketaren bidez, helburu hau lortu nahi du: hiri-hondakin solidoen bilketa sistema bat ezartzea, gutxienez, Europako, Estatuko eta Autonomiako araudietan eta dagozkien foru-planetan helburutzat ezarri diren portzentajeetan handiena lortuko duena.



PASAIKO UDALA

www.pasaia.eus IFK/CIF
P2006900A

Donibane kalea, 19, 20110 Pasaia
Tel: 943 344034 / Faxa: 943 515447

Idazkaritza
943 344140

idazkaritza@pasaia.net

Seigarrena. Pasaia Udalak San Markoko Mankomunitateak ematen duen gaikako bilketa zerbitzua jaso nahi du, eta hark zerbitzu hori eman nahi dio Udalari. Horiek horrela, bi alderdiek, bien arteko adostasunez, hasierako hitzarmena aldatzeko akordio hau formalizatzen dute, ondorengo itunen bitartez.

ITUNAK:

LEHENENGOA.- Hasierako hitzarmenaren lehenengo ituna aldatzea

Alderdiek adostu dute hasierako hitzarmenaren lehenengo ituna aldatzea; aurrerantzean honela geratuko da:

“Lehena. Helburua

Hiri-hondakinen sorrera murriztea, bereziki, errefusa-atala edo bereizi gabeko atala.

Helburu hori lortzeko, tokiko bi erakundeek ondorengo adosten dute:

1. San Markoko Mankomunitateak Pasaia hiri-hondakinen hondakin organikoak gaika biltzeko zerbitzua abian jartzea, giltzaz irekitzen diren edukiontzien bidez.
2. San Markoko Mankomunitateak Pasaia hiri-hondakinen ontzi arinak eta papera gaika biltzeko zerbitzua emango du, edukiontzi irekien bidez. Halaber, merkataritzako kartoiaren banakako bilketa egingo du, eskaeraren arabera.
3. Herritarrak birziklatzearen garrantziaz ohartarazteko kanpainak egitea, onartutako hondakinen kudeaketa sistemaren baitan.
4. Hiri-hondakin solidoak biltzeko edukiontzien bidezko sistema bat ezartzea, gutxienez, Europako, Estatuko eta Autonomiako araudietan eta dagozkien foru-planetan helburutzat ezarri diren portzentajeetan handiena lortuko duena.

BIGARRENA.- Hasierako hitzarmenaren hirugarren ituna aldatzea

Alderdiek adostu dute hasierako hitzarmenaren hirugarren ituna aldatzea; aurrerantzean honela geratuko da:

“Hirugarrena. Pasaia Udalak hartzen dituen konpromisoak

- Edukiontzien bidezko hiri-hondakinen bilketa sistema ezartzea, hondakin organikoak, ontzi arinak eta papera-kartoiak atal organikotik berez biltzeko, San Markoko Mankomunitateak eskaintzen duen gaikako bilketa sistemaren bitartez.
- San Markoko Mankomunitateari udal ekarpenak egitea, San Markoko Mankomunitateko Estatutuetan ezarritakoaren arabera.
- Kudeaketa Sistema Integralean hondakinen bilketa kudeatzeko unitate izateari uko egitea, izan ere, ontzi arinen eta papera-kartoiaren gaikako bilketa San Markoko Mankomunitateak egingo du.
- San Markoko Mankomunitateari baimena ematea, lehen adierazitako atalak biltzeko edukiontziak jartzeko.
- Hitzarmen honetan ezarritakoa betetzeko beharrezko akordioak hartzea, San Markoko



PASAIKO UDALA

www.pasaia.eus IFK/CIF

P2006900A

Donibane kalea, 19, 20110 Pasaia
Tel: 943 344034 / Faxa: 943 515447

Idazkaritza

943 344140

idazkaritza@pasaia.net

Mankomunitatearekin adostuta, Mankomunitateak Pasaia Udalarari ematen dion zerbitzuari eragiten dioten alderdiei dagokienez.

HIRUGARRENA.- Hasierako hitzarmenaren laugarren ituna aldatzea

Alderdiek adostu dute hasierako hitzarmenaren laugarren ituna aldatzea; aurrerantzean honela geratuko da:

“Laugarrena. San Markoko Mankomunitatearen konpromisoak

- *Pasaia Udalarari hiri-hondakinen gaikako bilketa zerbitzua ematea edukiontzien bidez, hondakin organikoak, ontzi arinak eta papera-kartoia jasotzeko, errefusa ataletik bereiz; azken atal horren kudeaketa Pasaia Udalak hartuko du bere gain.*
- *Atez ateko sistema indarrean izan den bitartean San Markoko Mankomunitateak Pasaia Udalarari eman dion bilketa zerbitzuarekin jarraitzea, hondakin hauei dagokiena: pilak, olioak, arropa eta beira, eta industrialdeetako hondakinen bilketa.*
- *Adierazitako atalei dagozkien edukiontziak jartzea San Markoko Mankomunitateak eta Pasaia Udalak elkarrekin adosten dituzten lekuetan, eta aldi behin edukiontzien ohiko mantentze-lana egitea.*
- *Aholkularitza ematea, gaikako bilketa sustatzeko estrategiari dagokionez.”*

LAUGARRENA.- Hasierako hitzarmenaren seigarren ituna aldatzea.

Alderdiek adostu dute hasierako hitzarmenaren seigarren ituna aldatzea; aurrerantzean honela geratuko da:

“Seigarrena. Iraupena

Hitzarmen honetan adostutakoa luzerako aurreikusten da, beraz, iraupena mugagabea da. Hala ere, bi alderdiek hitzarmenaren iraupena salatu dezakete, arrazoirik eman gabe, baldin eta beste aldeari hitzarmena indargabetzeko borondatea jakinarazten bazaio, hitzarmena indargabetzeko data baino 12 hilabete lehenago.

BOSGARRENA.- Hasierako hitzarmenaren zazpigarren ituna aldatzea

Alderdiek adostu dute hasierako hitzarmenaren zazpigarren ituna aldatzea; aurrerantzean honela geratuko da:

“Zazpigarrena. Hitzarmena indargabetzeko arrazoiak

Hitzarmen hau arrazoi hauengatik indargabetu daiteke:

1. *Bi alderdiek adosten badute.*
2. *Bi alderdietako batek hitzarmenaren iraupena salatzen badu, arrazoirik eman gabe, baldin eta beste aldeari hitzarmena baliogabetzeko borondatea jakinarazten badiu, hitzarmena baliogabetzeko data baino 12 hilabete lehenago jakinarazten bazaio.*
3. *Bi alderdietako batek hitzarmena salatzen badu, beste alderdiak onartutako betebeharrak bete ez dituelako. Hitzarmena bete ez duen alderdiak hitzarmena ez betetzeagatik beste alderdiari*



PASAIKO UDALA

www.pasaia.eus IFK/CIF

P2006900A

Donibane kalea, 19, 20110 Pasaia
Tel: 943 344034 / Faxa: 943 515447

Idazkaritza

943 344140

idadzkaritza@pasaia.net

eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio.

SEIGARRENA.- Akordio honen izaera aldarazlea eta ez azkentzailea

Alderdiek adierazten dute hasierako hitzarmena aldatu egin dela akordio honen aurkako alderdi guztietan, sinatzen den egunetik aurrerako eraginarekin; eta gainerako alderdiei dagokienez, hasierako hitzarmena indarrean egongo da eta guztiz eraginkorra izango da.

Eta horrela jasota geratzeko, eta ados daudela erakusteko, hitzarmen hau sinatzen dute goiburuan aipatutako leku eta egunean.

*Pasaia Udaleko alkatea
D^a Izaskun Gómez Cermeño*

*San Markoko Mankomunitateko lehendakaria
Jaime Dominguez-Macaya Lournaga*

Aurreko guztiagatik, Udalbatzak, legezko kideen gehiengo osoz, eta Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Informazio Batzordearen 2015eko irailaren 23ko irizpenaren bidez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea Hondakinen gaikako bilketa sustatzearen estrategia (GBSE) bultzatzeko San Markoko Mankomunitatearen eta Pasaia Udalaren arteko lankidetzak-hitzarmena aldatzeko akordioa.

BIGARRENA. Pasaia Udaleko alkateari berariaz ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

HIRUGARRENA: Akordio honen berri ematea San Markoko Mankomunitateari, dagozkien udal sailei, eta langileen ordezkariari.